

Noqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1998ko urtarilak 16. III. urtea

Usurbil, 34. Zenbakia

PHOEBE HEARST MUSEUM OF
ANTHROPOLOGY



Usurbil ameriketako
unibertsitateetan

Txerrimunik ordainetan



Zorionak zuri, zorionak beti... Zorionak **Miren Zarautz!** 13 urte bete dituzu urtarilaren 16an, bai zaharra!. Futbol taldeko lagunak.



Aupa **Iker Mujika** "pantiotis"! Zorionak! Oraingo honetan ez gara ahaztu! laz oharkabeen pasa zen urtarilaren 18a baina aurt... Hire lagunak.

Praxku Azpiroz Alsua aginagarra 67 urte beteko ditu urtarilaren 19an. Zorionak zure semeen partez.



Irati Portu Alzaga, urtarilaren 28an hamaika urte betetzera doan neska ponpoxa horri, Zorionak! Ana Marinen partetik.



Ana Altuna Zumeta. Hiri ere hogeita hamarrek iritsi zaizkin! Ze uste hunan ba? Urtarrilak 28an ospatuko diñagu. Zorionak! etxekoen partez.

Argazkia eta testua
alea atera baino
astebete lehenago
bidali

Norbait zoriondu nahi baduzu hemen duzu aukera. Zure lagunak, gurasoak, seme-alabak, ezkonberriak, lizentziatuak... zoriondu ditzakezu eta xentimorik ordaindu gabe gainera! Argazkia, eta jarri nahi duzun testua, Noaual Kultur Elkartera eraman edo bertako buzoian utz ditzakezu.

Hildakoak



1997-12-20
Anastasio Ullate Martinez
64 urte
Kaleberri



1997-12-28
Josefa Jaurrieta Etxarri
83 urte
Zubieta

1998-01-02
Segunda Irureta Ibargoien
81 urte
Kaleberri

Jaiotzak

Xabier Cardenas Añorga
1998-01-01
Kalezar

Maddi Usarralde Garmendia
1998-01-14
Lazkao



- Udala
- Udaltzaingoa
- Anbulategia
- Udarregi ikastola
- Agerialdeko ikastetxea
- Oiardo kiroldegia
- Zumarte musika eskola
- Etumeta euskaltegia

37 19 51
36 11 12
36 20 13
36 12 16
36 38 95
37 24 98
37 15 94
37 20 01

- Taxi geltokia
- D.Y.A.
- Gurutze Gorria
- Gure Pakea egoitza
- Gure Elkartea egoitza
- Arrate egoitza
- Eusko Tren informazioa
- **Noaual** aldizkaria

36 21 78
46 46 22
27 22 22
37 32 28
37 17 51
36 63 40
47 09 76
36 03 21

Noaua!

Usurbilgo hamabostekaria

Argitaratzailea: Noaua!

Kultur Elkartea. Kale Nagusia, 37
- 20.170 USURBIL (Gipuzkoa) Tlf.
eta faxa (943) 36 03 21. e-mail:
mandio@redestb.es

Zuzendaria: Olatz Altuna.

Kazetariak: Ainhoa Azpiroz,
Idoia Torregarai, Josu Aranberri,
Garikoitz Udabe.

Kolaboratzaileak: Pedro Mari
Matxain, Ines Kamino, Leire
Atxega, Iñaki Labaka, Iratxe
Begiristain, Amagoia Mujika,
Xabier Arregi, Pako Agudo,
Alfonso Vidal, Nieves Aranburu,
Luis Aranalde, Zalao Arnaiz,
Maribi Árospide, Agurtzane
Solabarrieta, Joseba Pellejero,
Joxe Aginaga eta Begoña
Arriaga. **Administrazioa:** Arantxa
Usaralde, Aitor Pikabea eta
Nerea Kamino. **Erredakzio**
Kontseilua: Olatz Altuna,
Garikoitz Udabe, Jose Jabier
Furundarena, Iñigo Azpiroz,
Idoia Torregarai, Josu Aranberri,
Ainhoa Azpiroz.

Maketazioa eta diseinua:

Susana Martin, Aitziber Elortza,
Olatz Goenaga eta Mertxe

Argazkia: Joxe Antonio Labaien.

Dokumentazioa: Idoia Agirre.

Informatika: Pili Lizaso.

Banaketa: Mertxe Jimenez, Txelo
Vidal eta Iker Muguruza.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Sukaldaria: Joxe Mari Sarasola.

Tirada: 2.200 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza,
Industrialdea 1 - 2, 20.160
Lasarte-Oria.

Noaua! hamabostekariak ez
du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta iritzien
erantzunkizunik.

**Azala: Jacky Urla
institutu aurrean**



Tratu txarrak

Dioni Beraetxe

Irakaslea

Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen kasuak ugari-tuz doaz azken aldi honetan. Behin eta berriz, tratu txarrak, psikologikoak nahiz fisikoak, jasan dituzten emakumeen bizipenak etengabeko informazio iturri bihurtu dira komunikabideetan. Lehen kexatitzat hartzen zituzten erasoak jasaten zituzten emakumeak, orain, ordea, gai honek tabu izateari utzi dio.

Badirudi, orain, 2000. urtearen atarian, lehen baino eraso psikologiko eta fisiko gehiago jasaten dituztela emakumeek. Irratian, telebistan, egunkarian behin eta berriz izaten dugu eraso hauen berri, baina hori ez da errealitatearen benetako islada. Gaur egun arazo honen aurrean kontzientzi maila haundiagoa du gizarteak, eta pertsona bakoitzak ere bai. Horrez gain, arazo hauek tratatzeko egiturak badaude, epaitegira joaterakoan asistente sozialek ematen duten laguntza, tratu txarrak jasan dituzten emakumeentzat pisu bereziak... Horregatik, emakume askok erasoak jasaten dituztenean, askotan, senarra edo dena delakoa, salatu egiten dute.

Epaitegietan jartzen diren salaketek ez dute tratu txarren benetako zenbatekoa ematen. Erasok etxean ematen dira, eremu pribatuan eta urte askotan tratu txarrak jasan izan dituzten emakumeak asko dira.

Dirudienez, salaketa jartzen duten emakumeen %50ak baino gehiagok 10 urtetan jasan izan dituzte tratu txarrak. Menpekotasun ekonomikoa, autoestima baxua, seme-alaben etorkizuna eta batez ere, senarrak edo bikoteak hartuko duen jarrera izaten dira eraso horiek ez salatzeko arrazoiak.

Komunikabideetan eraso fisiko berri izaten dugun arren, psikologikoki jasaten dutena haundiagoa izan ohi da. Egunero bikotearen irainekin bizi behar izaten dute, segurtasun eza nabarmena izanaz. Denborarekin, emakumearekiko irain eta desprezioak eraso fisiko bihurtzen dira.

Dirudienez, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen batzbesteko adina beheruntz doa. Orain arte batzbestekoa 35 eta 55 urte bitartekoa zen, orain, aldiz, adin hori beheruntz doa.

Zer egin guzti honen aurrean? Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeak hori salatu egin behar dute. Askotan legearen biguntasuna nabarmena izan ohi da, baina kasurik gogorrengatik banaketa izan daiteke tratu txar hoi konponbidea. Horretarako, emakumeek beren lana mantendu eta ekonomikoki independenteak izan behar dute. Horrek, tratu txarrak izan ezker bere bizitza berregiteko aukera emango lioke.



Usurbilgo Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz lagundutako
aldizkaria



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria

376
bazkide ditu Noaua!k.
Zu ere egin zaitez
bazkide

ABERTZALETASUNA ETA EUSKARA, BEREIZ AL DAITEZKE?

Usurbilgo *Euskal Herrian Euskaraz*-ek kanpaina honekin aurrera darrai. Nola uler daiteke abertzale sentitu eta euskaraz ez mintzatzea?

Usurbilgo tabernetan honelako esaldi hau plazaratu genuen: "*Eman itzazu 3 arrazoi abertzale izan eta euskaraz ez hitz egiteko*". Erantzunak aztertu ondoren honako ondoriotara iritsi gara.

Momentu edo garaia arabera gaztelaraz mintzatzea behartuta gaudela, hala nola, epaiketa batean, administrazio publikoko bulego batean, polizi kontrol batean, lantokian, ikatetxean ... Agian horrelako egoeretan zaila da euskaraz mintzatzea baina ez ditugu egoera horiek onartu behar, eta gure hizkuntz eskubideak aldarrikatzen jarraitu

behar dugu. Aldarrikapen hori urrats garrantzitsua eta beharrezkoa da euskararen normal-kuntzan.

Egoerak behartzen ez gaituen lekuetan berriz, gaztelarera jotzeko joera nagusia daukagu eta hor ez dago inongo aitzakiarik. Beraz, noiz sentitzen gara abertzale eta euskaldun? Gaztelaraz mintzatzera behartzen zaigunean? Nahikoa iruditzen al zaigu ikurrina eskuan dugularik "*Gora Euskadi askatuta*" oihukatzea? Ba al dago aberririk hizkuntzarik gabe?

EZ DAGO ARRAZOIRIK ABERTZALE IZAN ETA EUSKARAZ EZ MINTZATZEKO!!

Usurbilgo Euskal Herrian Euskaraz

AKATSAK ZUZENDUZ

33.alean egin genituen akatsak zuzendu nahirik gatoz oraingoan. Lehiaketaren orde, bazkide eta publizitatea egiten dutenen artean, zozketatuko ziren xextuko produktuen berri eman genuen, baita hanka sartu ere. Agiña piperminak eta Galardiko babarrunak jarri beharrean Galardiko piperminak jartzen zuen aurreko alean. Horra jarraian xextuan zeuden produktuen lista osoa: Saizarko sagardoa eta Belmont sagardoza, Kandido ardoa, Markel Olaizolaren patxarana, J. Mari Arrutiren txoriazoa, Galardiko babarrunak, Agiña piperminak, J.M. Alduntzinen ezti, J.J. Arrospideren onttoak, Aitzagako txanpaina, Andres Bruño e hijos-en mariskoa, Angulas Aginaga gulak, Karnele Iribar artzainaren gazta, intxaurreak, urrak...

xirrikitutik



Urtarrilak 6, errege eguna. Haurrak erregeak utzitako jostailuekin jolasean zebiltzan bitartean, aurrezki kutxa eta korreosko ate aurrean ikatz mordoska ikusi ahal izan genuen. Banco Gipuzcoano, Banco Popular Español, Euskadiko Kutxa, Kutxa eta postetxean ikatzak utzi zuten erregeek!

Buru-azalar enzainketa
Ile-apainketa

Etxebeste,3

Tel. 37 16 85

ORKO
CANETAKO
DENDAK

Aritzeta 2 - 2 Usurbil Merkealdiak

PORTUARRANE

ITURGINDEGIA
BAINUKO
ALTZARIAK

Kale nagusia, 2-2-2D
Tlf. Denda 36 46 37
Etxea 36 52 99





JOXE MARI ERRASTI ESNAOLA

77 urte beteko ditu datorren hilean aginagar honek. "Soroetxeberri"n sortu eta bizi da, nahiz eta herritarrok "Sekaña" esanda ezagutzen dugun baserri hau. Hargina ofizioz, bere lanbidea gustokoa izan duela aitortu digu, baina bertan egiten den lana gogorra dela ere adierazi digu.



Eskolara joandakoa al zara?

Etxean beti zegoen lana egiteko, eta beraz, eskolara buelta gehiegi egin gabekoa naiz. Senide asko ginen etxean, zortzi edo hamar bat. Hala ere, oraindik gogoratzen naiz "maix-traz". "Pitxita" deitzen genion. Berarekin egoten ginen 50 edo 60 bat neska-mutil. Baina gehiegi ez nuen ikasi, irakurri eta idazteko adina.

Eta nola iritsi zinen hargin izatera?

Aitarekin hasi nintzen honetan, 16 bat urte nitue-nean. Segituan gerra sortu zen eta hiru anai hara eramán zizkidaten. Beraz, aita eta biok jarraitu behar izan genuen lanean. Anaia bueltatzean, berriz, berarekin jarraitu nuen lanean, izan ere, aita ja ez zegoen sasoián. 44 urte pasa ditut lan honetan, 60 urte bete nituen arte. Txarrena da orain bizi naizela ondoen, baina orain zaharra!

Izan ere, garai hartan dena zuen indarrez egin beharko zenuten?

Noski, gaur egun lan guztiak makinekin egiten dira, baina orduan "bizkarka" ibiltzen ginen harriekin. Orain ez nintzateke obra batean enkargatu ere izango; ez baitituzt gu ibiltzen ginen bezala lanean ikusten! Lehendabiziko aldiz grua Donostiako seminarioa egiten ari ginela ezagutu nuen, eta ja urte batzuk baneramatzan ofizioan. Astoari ere ez nioke opatuko bizitza hori.

Eta anguletan, zer moduz?

Ba, ezkondu bitartean gehiago ibiltzen nintzen. Baina gero, fabrikak direla eta, ura izugarri zikindu eta errioa galdu egin zen, txokolate kolorekoa jarri eta izugarritzko kiratsa botatzen zuen. Orduan galdu ziren Oriako angulak, orduan!

Lantegian ere lan egin al duzu?

Bai, "Acerosen" bi urte igaro nituen. Hiru anaiak soldadu nituen, eta horregatik nik bi urte pasa behar izan nituen bertan bonbak egiten.

Nola gogoratzen duzu gerra garaia?

Oso gogorra izan zen: ez urik, ez egurrik, eta ez ezer ez zegoen. Gure gaztetasun osoa harrapatu zuen erdiz erdi. Mixeria izan zen hura. Garai hartan olioak 20 duro balio zuen. Eta baserritik ateratzen zenaren hiru laurdenak ere eman egin behar ziren.

Gerrara ez, baina soldaduzkara joan al zinen?

Bai, Burgosera joan nintzen. Eta hemen nahikoa lan izan genuen, izan ere, erderaz bakarrik "si" eta "no" esaten bakarrik bainekien. Eta asko zeuden hori ere ez zekitenak. Eskerrak Donostiako kabo bat egin zela gure kargu. Ametralladoreetan ibili ginen ia euskaldun guztiak, indar asko behar zelako hauetan. Hala ere, beti "Hable español" esaten ziguten eta guk zer jakingo genuen ba espáñolez!

Eta noiz sortu zenuten erretegia?

Ezkondu eta segituan taberna jarri genuen. Gero, ja hazi zirenean proposatu nien ea lagun-duko ninduten erretegiaren proiektuan eta baiezkoka eman zidaten. Eta guk geuk, seme batek eta biok egin genuen erretegia..

Telebistazale amorratua bihurtu oman zara.

Bai, egia da. Ardiak, hegaztiak eta txerria gobernatu ondoren eta baratzeko lanak bukatuta, telebistaren aurrean jarri eta bertan egoten naiz gaueko ordu txikiak arte. Afaltzerakoan ere ez dut begibistatik galtzen; emazteak makina errieta egiten dit horregatik!

PATRI

JATETXEA

Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia,6
Tlf 36 27 25

20170 Usurbil
(Gipuzkoa)

MAHUKA



GAZTE DENDA

Merkealdiak

neguko arlope

Etxebeste kalea,3 - Tlf. 36 11 06

xabier

albergoa

Pinxo aukera bikaina
Gosari bereziak

Artizeta 2

905 36 19 78

TXOKOALDE

Joxe Aginaga



Garai bateko kontuak gogoratuz

Aurreko batean gaztetako Argazkia hartu eta ezkondu aurrekoa edo ondo-rengoia ote zen gogoratzen ari nintzela zera konturatu nintzen: urteak aurrera joaten dira eta honekin gizasemearen itxura ere aldatu egiten da. Bestela ikusi Lazkao Txikiren programa. Soldaduska egin aurretik eta gero ondo ezberdina dago ezta?

Honelaxe ba, garai bateko denbora haiek gogorarazten dizkirate kontu guzti hauek. Eguraldia adibidez. Eguraldiak gorabehera asko izaten ditu, baina aspaldi honetan negu gutxi egiten du. Hala ere,

negu gogorak ezagutu ditugu Txokoalden, 1956. urteko otsaila adibidez, egunez jela ekartzen zuen haizea... Hila-bete guztian egin zuen jela, dena ihartuta gelditu zen, berriz berriz jaioko zenik ez nuen uste, halako otsaila egin zuen orduan.. ez orain bezala!



Oilagorrek ere asko izaten ziren garai haietan. Egunero, gutxienez, laupabost oilagor botatzen zituzten Lartzaundieta gaineko inguru horretan. Orain, ordea, apenas tirorik sentitzen den inguru hauetan.

Eta anguez zer esanik ez! Nik neuk, Illunben bizi izan arren ez dut inoiz anguletan egin, baina garai batetik hona aldaketa nabarmena eman du angula kontuak. Lehen, nire aitak, 8-10 kilo etxera ekarri eta hori gutxi zela esaten zuen. Nork hartuko lituzke orain 10 kilo haiek! Izan ere, anguletan ibili ibiltzen dira, baina harrapatu... ez dakit!

KALEBERRI

Begoña Arriaga



Kirol patronaturako ordezkari bila

Oiardo kiroldegitik gutxitan ateratzen naiz ni. Erosketak egitera eta ostiraleko poiteora, horregatik Kaleberrin gertatzen denaz besteen ahotik jasotzen duguna izaten da eta badaezpada ere, kiroldegian pil-pilean dugun gaiaz hitzegingo dut oraingoan.

Kirol patronatuan kiroldegiko bazkideen ordezkari izan zaitezke zuek. Izan ere, bazkideen ordezkari izateko hauteskundeak egiten dira, baina hauteslerik ez da oraindik aurkeztu. Jendea beldurra dagoela dirudi. Izena emateko epea amaitu zen eta ez

zen inor aurkeztu, orain urtarrilaren 30a arte zabaldu da bazkideen ordezkari postua hartu nahi dutenentzat izen-emateko epea.

Hilean behin egiten du patronatuak bilera eta

bertan kirol talde ezberdinetako taldeak biltzen dira, guztioi dagozkigun kirol kontuak jorratzeko asmoz. Hori bai, iniziativa duen norbait aurkeztea izango litzateke egokiena.

1997. urtean Xabier Eizagirre izan da Kirol patronatuan bazkideen ordezkaria. Aurreko urtean, aldiz, Jon Gallegok bete zuen postu hori. Hurrengoia zu izan zaitezke. Bestela ez dakit zer gertatuko den, bazkideak beren ordezkariarik gabe geldituko ote dira?

Badakizue, aurkeztu nahi duenak, urtarrilaren 30a baino lehen izena eman behar du kiroldegian bertan.



ATXEGALDE

Amagoia Mujika



Urbanizazioa berritzeko adjudikazioa

Atxegaldeko urbanizazioaren inguruko berriak dakarzit oraingoan. Izan ere, urbanizazioaren berritze obrak adjudikatzeko 10 enpresa ibili dira lehian. Aurrekontuak aurkeztu eta obrak zuzenduko dituen ERAIKI S.L-ko injineruari pasa ondoren, Altuna eta Uria enpresaren aurrekontua hartu du egokitza. Beraz, Altuna eta Uria enpresari adjudikatu zaizkio Atxegaldeko urbanizazioaren obrak, 107.499.679 pezetako kostuarekin. Ea ba laister hasten diren lanean. Buila eta zalaparta izango dugun arren Atxegalde era-berritua ikusteko irrikitan gaude.

Urbanizazio kontuekin jarraituz, berritze lanekin zabor ontziren bat jarriko dutelakoan nago. Gaur egun, Atxegalde ez duzu zabor ontzirik aurkituko. Lagun batek aipatu ondoren jabetu nintzen horretaz:



Atxegalde ez dago zabor ontzirik. Beraz, urbanizazioa berritzerakoan kaleak ez zikitze behar bezalako ontziak ere jarriko ote dizkigute?

Azkenik, nire tartetxo honekin amaitzeko, jabetxe berri baten berri eman behar dizuet. Zumartegi industrialdean "La Candela" jabetxea ireki zuten joan den urtarrilaren 8an. Jatekoa eta edatekoa emateaz gain, haurrentzako jolas parke txiki bat ere ba omen du, "Txiki park"-en antzekoa. Gurasoek jaten duten bitartean haurrak jolasean ibiltzeko leku egokia dutela entzun dut.

KALEZAR

Joseba Pellejero



Etorkizuneko Kalezarri begira

Urte zaharrari agur esan eta berriari atea ireki ostean etorkizunera begira jartzen ditugu begiak. Ohartu baino lehen joaten zaigu denbora eta inguru hurbilean ere alda-

ketak nabarmenak izaten dira. Nork esan orain dela bospasei urte inguru kalezarreko kaxkoa hain dotore egongo zenik?

Urteek aurrera egin ahala Kalezar ere gartuz doa eta etorkizunean ez jakin nola geldituko den. Illaramendi aurrean etxeak egitekoak dira, 20 etxebizitza izango dituen bi bloke egingo omen dituzte.

Honekin batera, Eguzkitzaldeko

obretara begiratzen badugu etorkizunean Kalezarrera joateko bidea zein izango den ikusi daiteke, nahiz eta bide hau erabili ahal izateko itxaron egin beharko dugun. Izan ere, Illaramendiko obrekin batera egingo baitute bidearen bigarren zatia.

Horrelaxe dira gauzak, hainbeste urtetan erabilitako zubi zaharra hemendik urte batzuetara ez dugu erabiliko. Zer egingo ote dute berarekin? Auskalo!

Azkenik beste lan batzuen berri ere izan dut. 1998. urteko aurrekontuetan Kalezarren parke bat egitea jasotzen omen da..



SANTUENEA

Alfontso Vidal



Ingemar aurreko bide berria erabiliz

Ireki dute bai, bide berria. Gabonetako erregalia balitz bezala, azken hilabetee-tan lanean jardun ondoren Ingemar aurreko bide berria erabiltzeko aukera du orain Santuenea aldera doanak edo Santuenetik datorrenak.

Azken urteetan orain arte zegoen bidearen egoera ikusita alde ederra dago orain. Kotxez doazenak bide zabala goa dute orain eta Ingemara sartzen diren kamioien beldur izateko arrazoirik ez dago, hauek bide zaharra erabiltzen baitute. Ingemarrek bereganatu du orain arteko bidea eta bertara doa

zen kamioi edo dena delakoak ez dute bide berria erabiliko.

Oinezkoentzat ere nahikoa leku badago orain. Bidearen bi aldeetara espaloiak egin dituzte eta arris-
kurik gabe lasaigo ibil daitezke Santuenera edo Zubietako buelta ematera doazen guz-
tiak.

Bestalde, urtarrilaren 3an, larunbatean, Ermotegi baserri-
ko atzeko hormaren zati bat



erori zen. Susto ederra, baina berrikuntza lanak berehala hasi behar dituztenez ez dute galera haundirik izan. Hemendik aurrera, beraz, obretan jardungo dute jo eta ke Ermotegi baserrian.

URDAIAGA

Maribi Arrospide



San Esteban Txiki eguneko ohitura

Abenduaren 26a, San Esteban txiki eguna. Urdaiaga aldean azken urteetan berriz berreskuratutako ohitura dugu, bai horixe. Meza nagusia entzun eta festetako batzordekoek ematen duten

amaiketakoaz gozatu, hori bai ohitura ederra. Haragi egosia, txorizoa eta ardo pixka bat, dena aspaldiko ezagun edo eguneroko lagunekin berriketan ari garen bitartean.

Aurtengoan eguraldiak ez digu lagundu. Estebanek ez zuen urteroko latigoa aterako. Euria eta haizea izan ziren nagusi hamaiketako egiteko orduan. Jaten eta edaten hasi eta aterkiak ireki behar. Hala ere, egiten zuen haize zaka-


rraren erruz, busti nahi ez zuen elizako aterpera sartu behar izan zuen, ez baitzen giro kanpokaldean. Eguraldiak lagundu ez arren betiko giro jatorra nagusi Urdaiaga aldean.

Festa kontuak alde batera utzi eta Urdaiagan komun publikoak egin behar dituztela entzun dugu. Leizekaldeko parkean ibiltzen den jende kopuru handia ikusita, udaran batez ere, ondo etorriko dira komun hauek. Dirudienez, obrak adjudikatu dituzte, bi milioi ingurukoak izango dira truke eta Ostatuko txabolaren zati bat kentzea ere litekeena dela entzun dut.



AGINAGA

Iratxe Begiristain



Aginagarren trebezia eskulangintzan

Eskulangintza ikastaroak aurrera doaz Arrate zahar egoitzan. Urtero antolatu ohi den ikastaro honetan bolillo, makrame, pintura eta antzeko eskulanak egiten ikusiko dituzu ikastaroa egiten ari diren aginagarrik.

Gero eta gauza zailagoak, bereziagoak egiten dituzte bertan, trebetasun haundia dutela erakutsiz. Harritzekoa, ikastaroan parte hartzen duten gehienak emakumeak dira, gizonezkoak ez omen dira honelako gauzak egitera animatzen. Hemendik piskatera erakusketa egiten dutenean ikusiko duzue zer nolako

gauzak egiten dituzten, harrituko zara.

Bestalde, Aginagako eskola txikiaren arazoak beste urrats bat eman du. Usurbilgo udalak Foru Aldundiko Hezkuntza



sailari proposamen bat egin zion; eskola txikiak elizak dituen lokaletara pasatzea planteatu zuen.

Hezkuntza sailak udalak planteatutakoa onartu berri du, Aginagako elizaren lokaletan eskola txikia kokatzeko proposamena hain zuzen ere. Beraz, orain, eskola txikikoek zenbat leku behar duten esan behar diote udalari, honek parroko taldearekin elizako lokalen alkillerra edo erosketak negoziatu ditzan.

Bien bitartean, Aginagako haurrak betiko lekuan jarraitzen dute, nahiz eta honen egoera

ZUBIETA

Mikel Bengoetxea



Amiriko kurba hobetzen hasi dira

Zubietako herribidean Ameri pareko kurba hobetu ahal izateko lanak hasi dira. Bide aldameneko lurretan lurra kentzeko makina jo eta su ari da lanean eta bertatik pasatzeko ere arazoak izan ohi dira lurra eramateko kamioia etortzen denean. Hala ere, bihurgune hau hobetzean alde ederra sumatuko dugu Zubietako herribidea erabiltzen dugun guztiok.

Guztira bost bihurgune hobetuko direla dio proiektuak. Amiriko kurba, Artzabaletakoa, Etxetxokoa, Lizarragako kurbak: Iruin-berri eta Kale-berriko kurba. Kurba bakoitzari, inguruko baserriaren izena

eman zaiola konturatuko zineten ja.

Hori horrela, proiektu osoa burutu ahal izateko prebisio ekonomikorik ez dagoela eta, premi haundiena duenarekin hastea pentsatu dute Donostia eta Usurbilgo udalek, hau da, Amiriko kurbarekin. Obrak eragindako lurrak eskuratzeko eta gainontzeko tramiteak burutzeko, lana Zubietako Batzarrak egingu du.



Guztira 327 m² erosi dituzte Usurbil eta Donostiako udalek Amiriko bihurgunea hobetzeko lanak burutu ahal izateko. Orain lanak hasi dira eta denbora gutxira arriskurik gabeko kurba izango dugu.

H erorrek esan



Herminia Sánchez

Aginaga

Niretzat bai. Adibidez, nik euskaraz ez dakit, eta horregatik nahi dut gazte-eraz jakin dezan. Baina euskaraz jakitea ere oso garrantzitsua da, zeren nire seme guztiak euskaraz hitz egiten dute.



Manuel Maiz

Kaleberri

Oso garrantzitsua da, zeren gehienek erderaz badakite baina euskararena... Euskal Herrian euskaraz jakin behar duelako. Gainera, ni lasaiago egoten naiz nire hizkuntzan hitz egiten, konfidantza gehiago ematen du.



Manuel Unanue

Atxegalde

Oso ondo iruditzen zait, hemengo gauza guztiak euskaraz funtzionatu beharko luketelako. Erdaldunei ere ez zaie guztia kendu behar baino... gurea lehenik errespetatu.



Maria Eugenia Irazusta

Aginaga

Bai, bietan jakin behar duela iruditzen zait; jende askok oraindik euskaraz ez dakielako. Bestetik, nik nahiago dut euskaraz hitz egin berarekin, konfidantza eta lasaitasuna ematen didalako.



Juan Ibarra

Kaleberri

Bai, dudarik gabe. Hemen dagoenez, gutxien euskaraz jakin behar du. Euskal Herrian badago, eta gainera administrazioaren lan bat denez, beharrezkoa du bertan hitz egiten diren hizkuntzak menperatzea. Madrilen egon balitz ez luke beharrik izango, baina hemen dagoenez, bai.



Isabel Gutierrez

Kalezar

Bai, noski. Horrela euskaraz hitz egiten duenari euskaraz erantzun ahal izango dio, eta berdin gazte-eraz hitz egiten duenari. Bakoitzak zerbitzua hobeto moldatzen den hizkuntzan jasotzeko eskubidea duela iruditzen zait. Bakoitzari berea.



Manuel Zubeldia

Etxealdia

Bai, horixe, niretzat bai behintzat. Horrela denak hobeto ulertuko ginatke. Nik asko estimatzen dut sendagilea euskalduna izatea, zeren noiz-bait gertatu izan zait sendagilea erdalduna izatea eta ezin azaldu egoki. Beti hobeto da euskaraz.

ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



GENERALI
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak zure zerbitzurako

Aritzeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07
20170 Usurbil (Gipuzkoa)



kafe berezia

ETXE-ALDIA, 1
TLF 36 27 70

20170
USURBIL

SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA



37 19 54

INDUSTRI ETa
IRA GARKI SERIGRAFIA
KAMISETEN INPRIMAKETA

Pediatra euskaldunaren zain

Usurbilgo guraso nahiz haurrek, pediatrarekin euskaraz komunikatzeko arazorik ez dute izango hemendik aurrera. Xanti Mintegi bizkaitarra abenduaren hasieran Cruces aldera joan ondoren, bere kontsulta euskaraz behar bezala gauzatzeko gauza ez zen ordezko pediatra ekarri zuten. Hala ere, udalak egin duen eguneroko presioaren ondorioz, lehen ere Usurbilen egon zen Mari Kruz Madina euskaldun zaharrak hartuko du pediatra postua.

Iñaki Arregi UEMako koordinatzaileak artikulatu batean zera zioen: "euskal herritarrok martxan jarri ditugun osasun zerbitzuak gero eta hobeak direla da plazaratzen duten mezua. Zerbitzuak hobetzeko ahalegin bereziak egiten ari diren arren osasun arloak badi zulo bat: euskaldunak euskaraz tratatzeko ezintasuna".

Usurbil dugu honen adibide garbia. Anbulategian dauden medikuek euskaraz nekez egiten dute, ez dutela egiten ez esateagatik. Honez gain, abenduaren hasieran **Xanti Mintegi** pediatra bizkaitarra Crucesera joan zen eta udalak osakidetzako pertsonalgora zuzendariari pediatra euskalduna eskatu arren, gaur egungo pediatrak euskaraz guraso nahiz haurrekin euskaraz komunikatzeko arazoak ditu.

Egoera honen aurrean, udaleko euskara zerbitzuak lanari ekin zion. **Lurdes Zubeldiaren** esanetan, "pediatra berria etorri baino lehen osakidetzako kide ezberdinei gutunak bidali genizkien, Usurbilgo egoera soziolinguistikoa kontutan hartu eta pediatra euskaldun bat bidaltzeko obligazioa zutela azpimarratuz. Pediatra berria etorri eta ez du euskaraz ondo egiten. Guraso

Osakidetzako arduradunei gutunak bidaltzeaz gain, Usurbilgo arazoa planteatuz egunero-egunero telefono deiak egin dituzte. Juan Maria Soret pertsonalgora zuzendariari egundoko presioa egin diote eta segimendua egunerokoa izan da. Arazoa aztertzen ari zirela, Osakidetzan arazo berria zela... aitzakia ugari jarri omen dituzte, baina azkenean lortu dute nahi zutena. **Lurdes Zubeldiak** esan digunez, **Mari Kruz Madina** izango da Usurbilgo pediatra. "Momentu honetan tramiteak egiten ari dira. Berez **Xanti Mintegi** da pediatra titularra, baina honek trasladoo eskatuko du. Honela bere ordezkoa den **Mari Kruz Madinak** etorri beharko du. Guri ez zaigu axola nor etorriko den, Usurbilen biztanlegoaren %82a euskalduna izanik pediatrak euskaraz ondo egitea eskatzen dugu".

Lorpen honekin Usurbil erreferentzi bat bihurtu da UEMako beste herrientzat. Eguneroko presioaren bidez zerbait lortu daitekeela garbi gelditu da. Osakidetzan zerrendarekin funtzionatzen dute, zerrendan lehenengo dagoena bidaltzen dute, euskaraz dakien edo ez kontutan hartu gabe. Izan ere euskararen plangintzaren falta nabarmena da Osakidetzan. Oraingoz Usurbilek pediatra euskalduna edukitzea lortu du. Hemendik gutxira gaitzontzeko medikuak ere euskaldunak izatea posible izango ote da?

Josu Aranberri



batzuen kexak jaso genituenean **Xanti Mintegiren** garaitik zerbitzu honek atzera egin zuela ohartu eta zerbait egitea erabaki genuen.

BITXITEGI
ARREGI
ORDUKARI



Kale Nagusia, 2
Tlf. 36 40 58



Skaitz

Bideo eta Argazkiak

Usurbil tlf 36 14 87 oiartzun

JUAN TXO
Burdindegia



Kalenagusia, 10
Usurbil

37 00 08

JACKY URLA: “Usurbilek baldintza egokiak ditu euskara berreskuratzearen gakoak ikertzeko”

Berkeley, California.

1997ko ekainaren azken eguna, Usurbilen Santixabel jai-usaia izango da dagoeneko. Gu berriz, herritik milaka kilometrotara Usurbil aztertzen hamaika urte daramatzan antropologa batekin gaude; Jackykin.

Antropologiako ikasketak bukatu ondoren tesia egitea erabaki zenuen. Zein izan zen tesirako aukeratutako gaia?

Doktoradutza tesia orain 10 urte bukatu nuen, hizkuntzaren berreskuratzeari buruzko ikerketa etnografiko bat zen. “Hizkuntza” eta “nortasuna” kontzeptuak uztartu nahi nituen, eta horretarako herri euskaldun bat aztertzea erabaki nuen.

Aztertutako herri euskaldun hori Usurbil izan da. Nola izan zenuen gure herriaren berri?

1981ean Londresera joan nintzen, bertan Elorrioko neska bat ezagutu nuen eta berarekin hasi nintzen euskara ikasten. Bere bidez, **Periko Sancristobalen** helbidea lortu eta tesiarekin hastea erabaki nuenean, Gasteizera joan nintzen, Perikoren bulegora. Honek berehala esan zidan, “badakit nora joan zaitezkeen, zuretzako herri egokia Usurbil da!”. Ondoren nire aurrean telefonoa hartu eta Patri jate-txera deitu zuen. Telefonoa bertako **Juanitak** hartu zuen eta Perikok amerikar bat bidaliko zuela azaldu zion. Honela joan nintzen lehenengo aldiz Usurbila, Patrienean berehala ate guztiak zabalik topatu eta bertan egun pare bat egin nituen. 1982ko irailean bueltatu nintzen berriro, 15 hilabeterako. Asteaz zehar Patrienean

egoten nintzen eta asteburuetan Urdaiagako Zabalea baserrian, **Mari Karmen Pagolaren** familiarekin. Interesgarria iruditu zitzaidan bi giro horiek ezagutzea, hau da; batetik herriko kaxkokoa eta bestetik baserri giroa.

Hizkuntzaren berreskuratzeari buruz idazteko Usurbil herri egokia iruditu zitzaizun hortaz?

Bai, oso egokia. Usurbilen gehiengoa euskalduna bada ere erdaldunen komunitatea badago. Ezaugarri hau garrantzitsua zen; elkarbizitza aztertzeke, hizkuntza eta identitatearen arteko harremana ikertzeko, hizkuntza ikasteko motibazioak ezagutzeke, e.a.



Kansas Cityn jaioa, 18 urte arte Michiganen bizi eta antropologiako ikasketak Californian burutu zituen. Usurbilen euskara ikasi eta doktoradutza tesia egin zuen 1982-83an. Gaur egun Massachusettsko Unibertsitateko irakaslea da. Hizkuntza berreskuratzeke herri dinamikak ikertzen ditu. EEBBetan zehar irrati librean, fanzinak, musikak e.a.ek euskararen berreskuratzean gazteria lotzeko duen garrantziaz hamaika hitzaldi ematen ditu.

Hala ere tesiaren lehenengo zatian Euskal Herri mailako azterketa egin nuen; hau da, hizkuntzaren berreskuratzea orokorrean. Bigarren zatia Usurbili dagokio. Garai honetan **Felix Aizpuruarekin** asko hitzegin nuen, berak esandakoa da hizkuntza berreskuratzeke motibazioa lortzeko, herri nortasuna eta usurbildar izatearen kontzientzia indartu behar direla. Ideia hau bat zetorren 60. urteetan Usurbilen buruturiko hainbat ekintzekin: Udarregi ikastolaren sorrera, garai hartako urbanizazio plangintzen gelditzea Usurbil Lasarte modukoa bilakatu ez zedin, e.a. Urbanizazio plangintza hauek diseinatu aurretik beharrezkoa da zein motatako herria nahi dugun jakitea. Hizkuntza aztertzerakoan guzti hau kontutan izan behar nuela konturatu nintzen, euskararen berreskuratzea plangintza soziokulturaltzat hartu behar zela alegia.

Tesia egitera etorri aurretik euskara zertxobait ikasi zenuen orduan?

Bai Londresen zertxobait ikasi nuen, baina egia esan Euskal Herrira joan nintzenean, hasieran ez nuen tutik ulertzen; nahikoa gogorra egin zitzaidan. Jendearekin hitz eginez, denborarekin gehiago ikasiz joan nintzen baina hasieran... zenbaitzuk pazientzia ederra izan zuten nirekin!. Orain hemen ez daukat hitz egiteko aukerarik eta dexente ahaztu zait.

Hemen ere klaseak jaso zenituen?

AEKn hiru hilabetez egon nintzen; hilabete bat Goierriko Euskal Eskolan eta beste hila-

bete batzuk Usurbilgo Gau Eskolan. Honela euskara ikas-teaz gain, irakasteko eredu ezberdinak ezagutzeko aukera izan nuen.

Zergatik euskara eta ez swahiliera, ez al dute azken hizkuntza hau antropologoak nahiago izaten?

Bai hala da. Baina nire erabakian arrazoi ezberdi-nak nahasten dira. Batetik euskara hizkuntza gisa oso interesgarria dela iruditzen zait. European, indoeuropea-rra ez izanik, mantentzen den bakarra da eta nire ustez beharrezkoa da bizirik irautea. Bestetik badituzte arrazoi pertsonalak ere: amona Nafarroakoa zen, Esparakoa hain zuzen. Elkarrekin pasatzen genituen udaretan Euskal Herriko isto-rioak kontatu eta euskal abestiak kantatzen zizkidan. Ni EEBBtan jaio nintzen, baina aita Iruñean eta ama berriz Estatu espainolean, ikerketa honek beraz nire iragana eza-gutzeko aukera eskeintzen zidan.

Tesia bukatu ondoren Usurbili buruz ikertzen eta idazten ja-rraitu omen duzu.

Tesia orain 10 urte bukatu nuen, eta bertan esan bezala 82 eta 83an ikusita-koaz eta ikertu-takoaz idatzi

nuen. Ondoren lau alditan bueltatu nintzen, 94ean azke-nekoz. Urte hauetan jasotako informazioak hamaika urteko bilakaera aztertzei aukera eman zidan. Honela liburu bat idaztea erabaki nuen eta gaur egun hortan ari naiz.

Liburuaren izenburua Being bask speaking bask izango da, itzulpena gutxi gorabehera "euskara eginez, euskalduna izan" litzateke. Bertan, oroko-rrean AEKz, euskal rock radika-

laz, irrati libreez, prentsa ida-tziaz... hitz egiten dut eta ondoren Usurbilen eta inguru-ko beste herri batzuetan ger-tatu diren eta sortzen ari diren esperientziak aztertzen ditut. Besteak beste Paotxa, Molotoff eta **Noaua!** aipatzen ditut. Ekimen hauek euskara



berreskuratzeko estrategia politikoak direla defendatzen dut, herritarrengandik sortuta-ko estrategiak.

Hamaika urtetako bilakaera-ren berri baduzu, beraz, zein aldaketa aipagarri ikusten dituzu 1982ko Usurbildik hona?

Garai hartan orokorrean arlo didaktikoa edo irakaskuntza zen hizkuntza berreskuratzeko tresna nagusia.

Eta hizkuntz politika plangin-tzak instituzioak egiten zituzten soilik. Egun urrats oso garrantzi-tua eman da; herri mailako taldeak antolatu dira eta hauek ekintza ezberdinak bul-tzatu eta espazio euskaldunak sortzen saiatzen dira. Nire ustez beharrezkoa da herri mailan antolatu eta lan egitea, jen-deari hitz egiteko aukera eman eta honela normalizazio bidea jorratzea. Dauden lege-ak aplikatze eta irakaskuntza arloa jorratze hutsarekin ez

baitugu normalizazio hau lor-tuko. Azken finean herri eki-men hauekin hizkuntza kultura-rekin uztartzen da, eguneroko-tasunarekin. Honela euskara ez da soilik liburuetan jasotzen den gauza, kulturaren mamira hurbiltzeko eta komunikatzeko tresna baizik. Zentzu honetan,

Euskal Herrian euskararen alde egiten den herritarren ahalegina, izu-garria da!

Usurbili dago-kionez, UEMAN sartzearen ga-rrantzia aipa-tuko nuke. Orokorrean nire ustez, herrian bizitza gehiago dago, gazteak asteburuetan

bertan gelditzea esanguratsua da. Bestalde, herritarrek Udalarekin orain hamar urte baino harreman estuagoa dutela esango nuke.

Eta guzti honetan nola ikus-ten duzu Noaua!?

Herri mailako prentsa oso garrantzitsua da euskaldun zaharrak eta berriak batera-tzen dituelako. Orain arte ez da horrelakorik gertatu, eus-kaldun zahar helduen gehien-goak ez du euskaraz ikasketa-rik izan. Noauak! erabiltzen duen hizkuntza irakurteraza da, eta hau erakargarria da talde honentzat. Euskaldun berrientzat ere tresna izugarri aberatsa da.

Gainera herriko albisteak jo-rratzen dira, gertukoak dire-nak. Irakurketa bultzatzeko estrategia ezin hobea da. Azkenean, guzti honek euskal-dun zahar eta berrien batera-tzera garamatza, komunitate linguistikoa bakarra osatuz. Hau da benetan **herria eraikitzea!**

Olatz Altuna Zumeta

Gabonak: etengabeko festa egunak

Santo Tomas, Olentzero, jaiotza, urtezahar, errege Seguna... gabonetan ekitaldi ugari izan dira herrian. Abenduaren 20an Ziortzak antolatuta, taloa eta txorizoa jateko aukera paregabea izan zen frontoian. Abenduaren 24ean, eguerdian olentzero iritsi zen Usurbila, eta Zendoiaenea aurrean egon zen umeak agurtu eta gozokiak banatzen. Arratsaldean, berriz, parroko katekistek antolatutako jaiotzarekin kantu kantari jende ugari ibili zen auzoz auzo. Urtezaharra agurtu eta urteberriari ongietorria emateko, Akelarrearen doinuak entzun ahal izan genituen urtarrilaren 1ean. Eta noski, eguberri jaiei amaiera emateko, umeek erregeak agurtzeko aukera izan zuten urtarrilaren 5ean.



Atsobakarreko lurren kalifikazio aldaketa onartu dute



Gipuzkoako Foru Aldundiak Atsobakarreko lurren kalifikazio aldaketari baiezkua eman zion joan den abenduaren 23an egin zuten bilkuran. Urteko azken hilabetean proposamena behin eta berriz mahai gainean utzi ondoren, Atsobakarreko lursaila industrial izatetik komertzial izendatzeko baimena eman du. Kalifikazio aldaketa onartu arren baldintza batzuk jarri ditu Foru Aldundiak; izan ere, kalifikazio aldaketa onartu bai, baina lurzoru industrial izaten jarraitzen du Eusko Jaurlaritzak bestelako zerbaite esan bitartean. Beraz, Eusko Jaurlaritzak onartu beharko du orain kalifikazio aldaketa.

Jende ugari herriko gudari hilen omenaldian

Usurbilgo gestorak antolatuta **Joxe Martin Sagardia** "Usurbil", **Joxe Luis Seguro** "Nazkaz" eta **Joxe Mari Aranzastroke** "Arrantzale" omendu zituzten joan den abenduaren 30ean herriko frontoian egin zen ekitaldian. Usurbilgo Jarrai eta Gestoretako kideek idatzi bana irakurri ondoren lore sorta bana eman zitzaizkien gudari hilen senideei. Ondoren, bi preso usurbildarren hitzak entzun ahal izan ziren. **Xabier Aranbururen** eskutitza irakurtzeaz gain omenaldira inguratu zirenek, **Ramon Uribe** grabatutako zinta entzun ahal izan zuten. Herriko kaleetan zehar egin zen manifestazioarekin amaitu zen ekitaldia.



TABERNA



**7 t'erdietan
irekitzen dugu**

Goizgoizetik
gosariak

Irazu kalea, 12
Tlf: 36 02 17



**URTINEA
LORATEGIA**

Lore eta lore landareak

San Esteban
Tlf. 36 22 55

EGUZKITZA AURREKO BIDEA BERRITUKO DUTE

Usurbilgo udalak Urdairatik Orioko Bentara doan bidea hobetzeko proiektua burutu ahal izango du. Hainbat urtetan Eguzkitzako baserriko jabearekin istilu ugari eduki ondoren, Eusko Jaurlaritzak bidea berri-tzeko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak Usurbilgo udalak bereganatu ditzazkeela erabaki du. Beraz, udalak edozein momentutan egin ditzazke bidea obetxe-ko obrak.



Udarregi ikastolako frontoia duzue argazki honetan. Ez da hori bere ohizko itxura, baina gabonetan ederki "apaindu" ditu norbaitek ikastolako paretak. Izan ere, gabon hauetan hainbat pintada egin dituzte ikastolako horma, persiana eta frontoiko paretetan. Ez da lehenengo aldia, azken urteetan zenbait aldiz garbitu behar izan baitituzte frontoiko paretak, baina oraingoan, zenbait irakasleren aurkako irain gogorrak agertu dira lehen aipatutako pintadetan.

LEMA BERRIA UDALEKO INPRIMA-ORRIETAN

Urte berriarekin batera udaleko inprima-orrietan lema berria agertzen da. Azaroan egindako ple-noan onartu ondoren, inprima-orrien eskuin aldean "Euskal preso-ak euskal Herrira" lema jarri dute, bere logotipoaz hornituta (Euskal Herriko mapa bi geziekin). Udaleko ordezkarien esanetan, lema hau orrietan jarritzaz iniziatiba honekin presoak Euskal Herriratzeko eskakizuna present ego-tea lortu nahi dute.



Sardina zaharrak, gaztainak eta sagardoa, inuxente egunerako menu egokia. Jendeak gustora jan eta edan zuen behintzat inuxente egunean Sagardoaren lagunek antolatu zuten barrikotean. Azken urteetako ohiturari jarraituz, hotza uxatu eta tripa betetzeko aukera paregabea izan zuten abenduaren 28an dema plazara inguratu ziren guztiek. Sardina zaharrak probatu bai, sagardoa edan ere bai, baina gaztainak hartzeko zain egoten zen jende gehiena.



Pasa den abenduaren 21ean, igandea, izugarrizko jende ilada ikusi ahal izan genuen Oiardo kiroldegia-aren atean. Haur eta gurasoek osatzen zuten jende zerrenda luze hau, eta guz-tiak ere **Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak** ikuste-ko irrikitan zeuden. Argiak itzali eta hiru pailazoak agertu orduko, haurrak izan ziren protagonista arratsalde honetan. Abestu, jolastu eta ondo pasatzeko okasio ederra izan zuten etxeko txikie-nek. Eta hain txikiak ez direnak ere bai.



**TXIRIBOGA
TABERNA**

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 - Tlf. 37 00 13



Igandetan ganba-ziri mundialak!

Andoni Aizpurua, etorkizuneko kirolaria

15 urte ditu. Bere adineko gazte asko bezala kirolaria da bera. Futbola gustuko du eta Añorgako taldean jokatzeko kadete mailan. Baina hala ere judoan lortu ditu lorpen haundienak. Orain, etorkizuneko kirolaria izendatu berri du Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Espero al zenuen?

Espero, espero, egia esateko zerbait banekien, entrenadoreak esan baitzidan. 200 kirolari inguruk genuen diploma hau jasotzeko aukera eta proba fisikoak egin ondoren 46 kirolari izendatu gintuzten etorkizuneko kirolari.

Proba fisikoei esker izan da orduan guztia?

Ez, orain arte lortutako sariak ere kontutan hartzen dituzte. Proba fisikoa korrika egin genuen, besterik ez. Horregatik, bakoitzak bere kirolean izandako lorpenak begiratzen dituzte batipat. Judon ondo ibiltzen naizelako izendatu naute etorkizuneko kirolari.

Zergatik aurten eta ez aurreko urteetan?

Iaz ere aukerak banituen baina adinez gazteegia nintzelako ez zidaten eman. 17 urtez azpikoei ematen diete beka antzeko hau eta niri aurten egokitu zait.

Judon txapelketa asko irabaziko zenituen orduan.

Ez dakit asko, baina batzuk bai. Orain dela bi urte Euskadiko eta Espainiako txapeladun izan nintzen. Iaz, berriz, ni baino urtebete zaharragoen aurka hirugarren postua lortu nuen Euskadiko txapelketan. Bost urterekin hasi nintzen judoa egiten, Agerialden hain zuzen ere, eta piskanaka-piskanaka txapelketetan postu onak lortu ditut.



Zer kategori eta pisutan zaude orain?

17 urtez azpikoetan ibiliko naiz aurten. Iaz ni baino urtebete zaharragoekin borrokatu nintzen, baina aurten nire adinekoen aurka eta gazteagoen aurka jardungo dut. Pisuari dagokionez, lehen 50 kilotan aritzen nintzen, baina orain 55 kilotan.

Kiloekin gorabehera haundiak izaten dituzue?

Batzuetan kilo batzuk jeitsi behar izaten ditugu, baina asko jeitsi behar badira pisu gehiagokoekin borrokatzen dugu. Ni, adibidez, aurten justu nabil, 55 kilotan sartzeko zailtasunak ditut. Baina, txapelketarako jeitsi beharra dut.

pelketarako jeitsi beharra dut.

Aurten txapelketa asko irabazteko asmoarekin?

Saiatuko naiz. Larunbatean, hilaren 17an, Egian Gipuzkoako txapelketa daukagu, eta hori irabazteko aukera haundiak ditut. Ondoren Euskadiko txapelketa dator eta hemen lehenengo postua eskuratzeko duenak Espainiako txapelketan parte hartuko du.

Judon gerrikoak garrantzi haundia du. Zein koloreta-koa erabiltzen duzu zuk?

Ni orain gerriko marroia naiz. Urtez-urte, pausoz-pauso gerriko horitik marroiraino iritsi naiz eta aurten gerriko beltza lortu nahi nuke. Puntuak baditut

baina entrenatzaileak esan behar du noiz nagoen gerriko beltza jatzeko prest.

Judoa bai, baina futbolean ere ibiltzen omen zara.

Bai, Añorgako taldean jokatzen dut, kadeteetan. Futboleak jolastea asko gustatzen zait, baina afiziozko kirola da niretzat. Futbolaria ateratzea oso zaila da, oso ona izan behar da. Nik, judoa hartzen dut serio, ez futbola.

Judoarekin bizimodua aurrera aterateke?

Hori ere oso zaila da. Judoarekin bizimodua ateratzeko oso ona izan behar da, baina nik jarraitu egingo dut.



2. nazionalako **Usurbil K.E.** eskubaloit taldeak bigarren postuari eutsi eta lehenengo postura gerturatzeko saiaturako da. Urtarrilaren 17an **Portugaleteren aurka** Bizkaia aldean.

URTARRILAK 16 ostirala

- **Areto futboleko partidua** (m): **Leizaran- Xabier Edaritegia.** Andoaingo Alluralde kiroldegian.

URTARRILAK 17 larunbata

- Bigarren nazionalako **esku-baloit partidua** (2N): **Portugalete- Usurbil K.E**
- **Eskubaloit partidua** kadete mailan (m): **Usurbil K.E- Arrate** Oiardo kiroldegian arratsaldeko 16.30etan
- **Eskubaloit partidua** jubenil mailan (m): **Usurbil K.E- Arrate.** Oiardo kiroldegian arratsaldeko 18.00etan
- **Futbol partidua** bigarren errejional mailan (m): **Usurbil F.T- Alde Zaharra.** Harane futbol zelaian.
- **Futbol partidua** kadete mailan Harane futbol zelaian(m): **Usurbil F.T. - Amaro**

URTARRILAK 18 igandea

- **Saskibaloit partidua** (m): **Usurbil S.T - Elgoibar.** Oiardo kiroldegian 10.00etan hasita.

- **Futbol partidua** errejional mailan(n): **Usurbil F.T - Aloña Mendi.** Harane futbol zelaian

URTARRILAK 23 ostirala

- **Areto futboleko partidua** (m): **Xabier Edaritegia - Elgoibar** Oiardon, 20.45etan.

URTARRILAK 24 larunbata

- **Eskubaloit partidua** jubenil mailan (n): **Usurbil K.E - Leizaran. Oiardo kiroldegian** arratsaldeko 16.30etan.
- Bigarren nazionalako **esku-baloit partidua** (2N): **Usurbil K.E - Aloña Mendi.** Oiardo kiroldegian arratsaldeko 18.00etan.
- **Futbol partidua** errejional mailan (n): **Almen - Usurbil**
- **Saskibaloit partidua** (m): **Zumaiako - Usurbil S.T - Zumaiako kiroldegian** arratsaldeko 16.00etan.

URTARRILAK 25 igandea

- **Futbol partidua** kadete mailan Antilla futbol zelaian(m): **Orioko - Usurbil F.T.**

EMAITZAK

FUTBOLA

Urtarrilak 10-11

Urnieta **0** - Usurbil F.T **3** (2.R)
Usurbil F.T **2** - Urnieta **1** (ju.)
Lasarte Oria **3** - Usurbil F.T **2** (ka.)
Bergara **2** - Usurbil F.T **0** (n.)

ESKUBALOIA

Urtarrilak 10-11

Usurbil **27** - Pasaitarra **22** (2.N.)
Trapagaran **33** - Usurbil **17** (ju.m)
Trapagaran **28** - Usurbil **18** (ka.m)

Urtarrilak 10-11

C.D. Kostkas **66** - Usurbil S.T **33**

ARETO FUTBOLA

Urtarrilak 10-11

Xabier Edar. **3** - Cafe Boulevard **2**

HONDARTZAKO FUTBOLA

Urtarrilak 10-11

Aginaga Sagar. **9** - Teazeo Beltza **1**

GABONETAKO TORNEOA

Abenduak 31

Aginaga Sag. **0** - Bar Usurbil **0**
Usurbil jubenilak **2** - Aginaga Sag. **1**
Usurbil jubenilak **1** - Usurbil errej. **0**
Txapeldunak: Usurbil F.T jubenilak

Laburdurak

R.: errejionalak	ka.: kadeteak
N: nazionala	n.: neskak
ju.: jubenila	m.: mutilak

Zubietan badira Kimu Berriak

Kimu Berriak taldea Zubietako talde jaio berria da. Orain dela urtebete inguru sortua, antzerkigintza eta kantua lantzen ari dira gogo biziz. Protagonista nagusiak gaztetxoak badira ere, umeek, gazteek, gurasoek... denek osatzen dute Kimu Berriak taldea. Irailaren 21ean Zubietan egin zen Euskal Jaian "Albaiteruaren salan" antzeztu zuten, Santo Tomas bezperan, berriz, 2 eta 13 urte bitarteko gazteek eskaini zuten beren antzerkia.

Lehen ere Zubietan bazen Kimuak izeneko taldea. Orain dela 23-24 urte inguru **Izaskun Zubiria** eta **Paulo Uzkudun** dantza talde bat osatzen hasi ziren, baita lortu ere. Zubietako gazteei dantzatzeko irakatsi eta Santiotan, gabonetan eta egun berezietan hainbat emanaldi eskaini zituzten. Amets hark 10 urte inguru iraun zuen. Izaskunek zenbait urte lehenago utzia zuen taldea eta Paulo hiltzean Kimuak taldea historiako gelditu zen.

12 urteko haur baten ekimenez sortutakoa

Orain, ordea, Zubietak badu talde berri bat: Kimu Berriak. Ez da dantza taldea, baina Zubietako gaztetxoek bilgune bihurtu da azken urte honetan. Izaskun Zubiria tartean dago orain ere. Berak esandakoaren arabera 12 urteko neska baten musikarako zaletasunaren ondorioz sortutako taldea da Zubietakoa. **"Leire Osesen ama etorri zitzaidan honek elizan organoa jo nahi zuela esanaz. Honela bada, Leire eta bere lagunak, guztiak 12-13 urte bitartekoak, elizara etortzen ziren abestera eta instrumentuak jotzera. Orduan nik taldea bazegoela ikusi eta irailaren 21ean**



Zubietan ospatzekoa zen Euskal Jairako antzerki bat egitea proposatu nien bai hauei eta baita hauen gurasoei ere".

Horrelaxe sortu zen Zubietako talde hau. *"Euskal Jaian egin beharreko antzezlanak lantzen ari ginen, baina taldearen izena falta zitzaigun. Lehen Zubietan "Kimuak" taldea bazegoela aipatu nien eta taldeari "Kimu Berriak" izena jartzea erabaki genuen".* Irailaren 21ean izan zen Euskal Jaian, "Albaiteruaren salan" antzezlanak aurkeztu zuten. Kantua eta antzezpena uztartuz landu zuten ikuskizuna. *"Jendea gus-tora gelditu zen taldeak egin zuen lanarekin - dio Izaskunek-jendearen harrera oso ona izan zen, agian uste baino hobea".* Arrakasta honekin taldeak aurrera jarraitzea erabaki zuten.

Gabonetan ekitaldi gehiago

Gabonetan ere, hainbat ekitaldi burutu dituzte. Santo Tomas bezperan, 2 eta 13 urte bitarteko haurrek antzerki bat eskaini zuten, **Belen Zudairen**


zuzendaritzapean. Gabon egunean ere jaiotzarekin Zubietako hainbat txoko bisitatu zituzten eta elizan ere jaiotza antzeztu zuten, guraso, haur eta gaztetxoek artean.

Gurasoen lana

Izaskun Zubiriaren esanetan gurasoak egiten ari diren lana azpimarratzekoa da. *"Guraso gehienak egin dute zerbait, kolaborazio maila oso handia izan da. Batzuk erropak josi, besteak dekorazioan lagundu... lan handia egiten ari dira. Ni tartean nagoenez taldeaz hitzegiten ari naiz, baina agian gutxien egiten dutenetako bat naiz ni".* Azken finean, Zubietako haurren bilgune izan nahi du taldeak. Zubietako haurrak sakanatuta daude, ikastetxe desberdinetan ikasten dute, eta Kimu Berriak taldean guztiak bildu eta elkar ezagutu dezakete, ezberdintasunak alde batera utzita.

Etorkizunean zer? Proiektu ugari dituzte. Santiotarako antzezlan bat aurkeztea gus-tatuko litzazieke, Aste Santuan ere zerbait egin nahi dute...

Josu Aranberri


Patxi Azpiroz Manterola


37 urte,
kaleberrikoa
Injineru tekniko
elektronikoa
Zubietako
Lanbide Eskolan
irakasle
Mendizale
amorratua

Eguzkia, energia iturri

Eguzkia -batzuentzat "lon-txo"- mendeetan gizakion-tzat Jainkoa izan dena, gure galaxiako 135.000 milioi izarretariko bat da; ez haundia, ez txikia, erdi tamainakoa. Lurretik 150 milioi kilometrotara dago eta gure planeta baino 109 aldiz haundiagoa da. Bere masa Lurra bezalako 300.000 planetek osatuko luketena da.

5.000 bat milioi urte omen ditu eta, beste horrenbeste baino gehiago egonen da, oraindik ere, dir-dir. Bere argiak eta berotasunak Lurreko bizi-zikloak bultzatu eta modulatzeko ditu, Lurraren izateari iraunkortasuna emanaz.

Bere energia hidrogenoaren fusioaren erreakzio termonuklearretatik dator. Eguzkiak bere izpien bidez igortzen digu energia. Eguzki-izpiok, 300.000 Km/s-ko abiaduran 8 minutu inguru behar dute Lurrera iristeko. Segundoero $4 \cdot 10^{26}$ Jouletako energia irradia-tzen du Eguzkiak espazioko zentzu guztietara; hau da, $4 \cdot 10^{23}$ Kw-ko potentzia sortzen du.

Eta zenbat da hori? Ideia egiteko: mundu guztiko industriguneek momentu berean funtzionatuko balute, sortuko luketen potentzia, Eguzkiak sortzen duena baino 300.000.000.000.000 aldiz txikiagoa litzateke. Benetan izugarria. Eguzkiak segundo batean irradia-tzen duen energia, gizakiok sorreratik gaur arte kontsumitu dugun energia baino askoz haundiagoa dela jabetzeak, zirrara sortzen du.

Energia horren zati txiki bat besterik ez da iristen Lurrera. Ozono geruzak, hodeiek, atmosferan dagoen hautsak... zurgatzen dute gehiena. Bestalde Lurraren azalerara, batezbeste gutxi gora-behera, 900 w/m²-ko energia heltzen den arren, beti ere latitudearen, atmosferaren, unearen eta urtaroaren arabera noski, bertan ere energi galtze haundiak gertatzen dira. Kristal bat zeharkatze hutsare-

kin energia 700 w/m²-ra jeisten da adibidez. Galerak galera, Eguzkitik iristen zaigun energia haundia da: m² batean 100 w-ko zazpi bonbila pizteko adinakoa.

Usurbili dagokionean ere datuak harrigarriak dira. Azalera 24,9 Km²-koa eta batezbeste eguneko erradiazio osoa 2,97 Kw.h/m²-ko dela kontutan izanik, urtean zehar, batezbeste, eguneko erradiazio osoa 73.953.000 Kw.h-koa da. Usurbilgo herrian urtebetean kontsumitzen den energiaren erdia eskeintzen digu Eguzkiak egun bakar batean. Benetan izugarria.

Baina, nola aprobetxatu Eguzkitik datorren energia hau? Hortxe dago koxka. Naturak, orain dela milioika urte asmatu zuen modurik onena: fotosintesia. Prozesu kimiko honi esker bizi dira landareak materia inorganikoa organikoa bihurtuz. Egun energia lortzeko erabiltzen diren erregai fosilak ere (ikatz, petroleoa, gas naturala), materia organikoaren milaka urtetako deskonposaketaren ondorio direnez, hauetatik lortzen dugun energia ere Eguzkitik datorkigula esan daiteke.

Kontuak kontu, Eguzkitiko energi hau zuzenean aprobetxatzeko darabilzkigun sistemak lautan bil genitzake: arkitekturan (eraikuntza

teknika egokien erabilera); energia tenperatura txikietan lortzeko hegoaldera zuzendurik jartzen diren eguzki-panelak; energia tenperatura ertain edota haundietan

lortzeko teknologia: zentral termikoak; eta konbertsio fotovoltai-ko panelak.

Teknologia nabarmen hobetu da, eta Eguzkitiko energiaren erabilera asko zabalduta da; hala ere, oraindik badago zereginik. Batetik, ahalik eta energia gehiena lortzeko ikerketekin jarraitu eta bestetik, erabilera zabaltzea inolako poluziorik sortzen ez duen energia da-eta.

Inolako poluziorik sortzen ez duen energia da

1998. urteko aurrekontua onartu du udalak

Abenduaren 23an egin zen plenoan onartu ziren 1998. urteko aurrekontu orokorrak. Aurten 667.576.338 pezetako aurrekontua izango du udalak, iaz baino 28 milioi gehiago. Herri Batasunako zazpi zinegotzien eta Izaskun Maiz independentearen baiezeko botoekin, EAko bi ordezkarien abstentzioarekin eta EAJ-PNVko bien ezezko botuekin behin-behingo onartuta gelditu da 1998rako aurrekontua.

Aurten inoiz baino lehenago onartu dira udaleko aurrekontuak. Lehenengo aldiz, urtea amaitu baino lehen onartu da datorren urteko aurrekontua. Orain arte, hilabete baino gehiagoko atzerapenarekin onartzen ziren baina aurten, 1997ko abenduaren 23an 1998rako aurrekontua onartzea lortu dute.

Hala ere, honek baditu bere desabantailak. Aurrekontua zenbat eta lehenago egin, honen behin-behinekotasuna haundiagoa izaten da. 1998. urteko aurrekontua 667.576.338 pezetakoa izan arren, honen atzetik 1997ko likidazioa egin behar da eta honek kreditu aldaketak ekarri ohi ditu, aurrekontua aldatuz. Honez gain, nahiz eta Atsokabarreko lurren behin-behineko kalifikazio aldaketa onartu, aurrekontu honetan Eroskitik etor daitezkeen diru-sarrerak ez dira kontuan har-

tu. Beraz, Jose Antonio Altunaren esanetan "aurrekontu hau behin behinekoa da".

Aurrekontua berari dagokionez, 1997. urteko aurrekontuarekin alderatuta zenbait aldaketa badaude. **Xabier Olano** kontuhartzailearen arabera aurrekontu hau nahikoa orekatua da, gastu eta sarrerak berdintzen baititu.

Pertsonal gastuetan 245 milioitik 268 milioitara pasatzen da, %9,2ko igoera suposatuz. Langileen ordainketei KPI igoera aplikatu zaie eta kontratu berri batzuk ere kontutan hartu dira: aspaldian langabezian daudenak...

Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketa ere dexeite igo da, %8,6, iaz 111 milioi izatek aurten 120,5 milioi izatera pasa baita. Igoera honen truke zerbitzu haundiago batzuk izango ditugu, Añarbeko ura...

Finantza gastuek bosgarren urtez jarraian behera egin dute oso nabarmen, 38,7 milioitik 32,7ra jeitsiz. %15,6ko gastu murrizketa hau oso garrantzitsua da, interes tipoek ezusteko haundirik ematen ez badute bosgarren urtez jarraian berriro ere jeitsiko direlako.

Transferentzi arruntak, kirol patronatuari, kultur taldeei, ongizateari, Zubietako batzordeari ematen zaion diru kopuruak berdintsua izaten jarraitu-


ko du. Iaz 77,1 milioi aurreikusten ziren 1997rako aurten 78,9 milioitara pasatzen da.

Inbertsioak jeitsi egingo dira 1998an. Aurten 74,2 milioi inbertitzea espero da, iaz 108 milioi izan ziren bitartean. Nabarmenenak hirigintzan (44,7), Nekazaritzan eta Zerbitzutan (17,7), Hezkuntzan (3) eta Garapen Ajerntzian (5,3) egingo dira. Gainera, urtea aurrera doan heinean litekeena da inbertsio gehiago egiteko aukera izatea: uholde- etako laguntzak, Eroski... Aparteko finantziaketarik baletor inbertsio berriei ekingo diela argi dauka udalak.

Azken finean, aurrekontu osoaren gastuak neurri apalean igotzen dira, %4,5, KPIa baino zertxobait gehiago. **Xabier Olano** kontuhartzailearen esanetan antzeko diruarekin inbertsioak eta kapital transferentziak egiten jarraitzen du udalak, bere baliabide propioak erabiliz eta zorrak haunditu gabe.


EAJ-PNVk emendakin bat aurkeztu zuen zenbait proposamenekin. Hala ere emendakin honek ez zuen aurrera egin. Herri Batasunako zinegotziek eta **Izaskun Maiz** independenteak ezezko botoa eman zuten, EAko biak abstentitu egin ziren eta EAJko bi zinegotziek eman zuten aldeko botoa.

Josu Aranberri



Barrutikuntza
espezializatua

36 13 18



Murgintza - Gasa Berokuntza

J. Orbegozo

Bizkarra 1, 1. esk.

37 29 37 - 36 59 26



Telesforo
Ardoak

Zure mahairako egokienak

Kale Nagusia, 25
Telf. 36 12 20

Udarregiren bertsoak

Asiera eman du
Pello errotariyak
batek hainbat eginkizun
badaukagu biyak
aitortukoditugu
publiko eguyak
gure kolejiyuak
sagardotegiak

Pello konprenditu ezak
nere auko itza
atentziyoz bazaude
ez da izango gaitza
Gernikako arbola
euskeraren giltza
ez gaitue bentzituko
alperrik dabilta

Espazioz ta ondo
egin esamiña
artu doloria ta
propositu fiña
damutasunarekin
pekatu eginña
aubaz konfesiya
kontuz alegiña
izan penitentziya
kunplitzeko griña

Erremedioen txokoa

INFEKZIOETARAKO

Infekzioei aurre egiteko **Azeri buztana** eta **Pasmo belarra** erabiliko ditugu. Bakoitzetik eskukada bat inguru. Lehenik Azeri buztana bi edo hiru minutuz egosi, ondoren Pasmo belarra bota eta sutatik aterako dugu tapatuta. Egunean zehar bi edo hiru aldiz hartu.

ZIRKULAZIORAKO

Osina, Malba, Azeri buztana eta **Errura** erabiliko ditugu. Belar guzti hauek ardotan egosiko ditugu eta ondoren ardo hori erabiliko dugu zirkulazio txarra dugun tokietan igurtzitzeko. Igurtzia behetik gora egin beharko dugu.

Lehiaketa



Karretila bitxi hau
topatu dugu herri-
ko txoko batean.

**Ba al dakizue
non dagoen?**

Asmatzaileon artean
Bordatxo tabernan bi
pertsonentzako afaria
zozketatuko da.



Noaual!ko xexto eder hauek **Nekane Alduntzin Beraetxe** eta **Mikel Zumeta Beraetxe** bazkideei egokitu zaizkie. Publizitatea egiten dutenen artean, berriz, **Orbegozo** iturgintzako **Jabier Orbegozori**.



ARRAINDEGIA
PELLO
Arizeta Kalea, 1
Tlf 36 21 64
USURBIL

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 37 08 78

20170
USURBIL

TABERNA
JATETXEA



ANTXETA

EGUZKITZA, 4
TEL: 37 03 44
20.170 USURBIL

URTARRILAK 17 larunbata

- **Larrua Truk taldearen kontzertua** Elgoibargo gaztetxean. Gaueko 22.30etan.

URTARRILAK 19 astelehena

- **Usurbilgo Odol Emaileen Elkarreak** jakinarazten du gaur **odola eman** ahal izango dela anbulategian arratsaldeko 19.00etatik 21.00etara.
- **Aurtengo inauterietako gaia aukeratzeko bilera** egingo da Udarregi zaharrean, arratsaldeko 19.00etan.
- **Euskal Herria Askatu!**ren manifestazioa. Arratsaldeko 20.00etan, errotondan.

URTARRILAK 23 ostirala

- **Larrua Truk eta Ekhon taldeen kontzertua** entzuteko aukera izango dugu. Udarregi zaharrean, 22.30etan.

URTARRILAK 26 astelehena

- **Euskal Herria Askatu!**ren manifestazioa. Arratsaldeko 20.00etan, errotondan.

OHARRAK

- ✓ **Guraso eskolak saloi dantzen ikastaroa antolatu du.** Urtarriletik aurrera astearte eta ostiraletan bi ordu. Bertan, euskal dantzak, tangoa, fox-trota, baltsa, rocka, txaxa-txa, merengea, saltsa eta lanbada erakutsiko dira bertan. Izena eman nahi duenak, deitu telefono honetara: 36 41 80.
- ✓ **Andatza KKEk iraupeneko eski irteera antolatu du Iratira** datorren urtarrilaren 24 eta

Guraso eskolak antolatuta, Joseba Aierbek antzerki tailerra prestatuko du urtarriletik ekainera bitartera. Astean bi aldiz, bi orduz. Izena eman nahi duenak, deitu telefono honetara: 36 41 80. (Argazkian Aginagako eskolako haurren antzerkia).



25erako. Izena emateko epea urtarrilak 22 baino lehenago egin behar da, Txiriboga tabernan. Gainera, **bilera** egingo da egun berean arratsaldeko 20.00etan Udarregi zaharrean. Elurrik ez badago, urtarrilaren 25ean Orhy mendira irteera egingo litzateke.

- ✓ **Udalak "Enpresa kudeaketa eta sorkuntza" ikastaroa** antolatu du langabezia egon eta negozio ideia bat eduki eta aztertu nahi dutenentzat. Ikastaroa otsailean hasi eta martxoan amaituko da. Izena emateko epea urtarrilaren 23an amaitzen da. Informazio gehiago udaletxean. Telf: 37 19 51. Josune Mujika.
- ✓ **Usurbilgo Gazte Asanbladak 24 orduko futbol txapelketa** antolatu du urtarrilaren 31rako. Izena eman nahi duen talde bakoitzak 10.000 pezeta jarri beharko ditu. Izena emateko epea urtarrilaren 24an bukatzen da. Txiriboga eta Irrati tabernetan.
- ✓ **Pertsona euskaldun atsegin batekin benetako adiskidetasuna trukatu** nahi izan ezker, deitu 27 16 06 telefonora. Izaskun.

- ✓ **Andatza KKEk** gogorazten die bere bazkideei **federatu txartela** ateratzeko epea hilaren bukaera amaitzen dela. Dirua Kutxako 6622369 zenbakian sartu.

- ✓ **Kate bat galdu da.** Bertan, "Beñat, 1990-9-2" jartzen du. Inork aurkitu badu, deitu 37 26 75 telefonora.

- ✓ **Pisu bat hartu nahi nuke alokairuan.** Ahal bada, herriaren erdialdean. Deitu telefono hauetara eta Kristinarengatik galdetu: 36 58 99 edo 989 89 80 95.

- ✓ **Pixua daukat salgai** herriko erdialdean. Hiru gela, sukalde, komuna eta ganbararekin. Berogailu eta gasarekin. Interesatuok deitu 37 07 23 telefonora.

- ✓ **Pisu bat alokairuan daukat.** Interesatuok deitu 36 20 88 telefonora.

LANPOSTUAK

- ✉ **Neska euskaldun bat behar da** haur bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuak deitu 37 27 76 telefonora.



**MANUEL
BEGUIRISTAIN
AZURMENDI**

**MANOLO
BEGIRISTAIN
AZURMENDI**

"apelliduak abizendu"
Guk lagunduko dizugu, zatoz guregana!

Noaia!!
HARRAROSTERRA

Kale Nagusia, 37 - Tel. 36 03 21



**EUSKAL HERRIAN
EUSKARAZ
BATZORDEA**



**EUSKAL HERRIAN
EUSKARAZ
84 postakutxa
Usurbil**

Noaua! GUZTIEN BILDUMA

Azken urte eta erdi honetan Usurbilen gertatu denaren historia jasotzen duten **Noaua!** hamabostekariaren 33 zenbakiak kuadernatu eta jasotzeko aukera eskeintzen dizugu. Bilduma hau erabilgarria izateko egileak, landu diren gaiak eta aipatu izan diren usurbildar guztien izenak biltzen dituen aurkibide mardul bat osatu dugu, ale honekin batera doakizuna, alegia.

1996 eta 1997ko **Noaua!**k koadernatu nahi badituzu honako hau egin behar duzu:

1.- **Noaua!**ko ale guztiak, 1etik 33ra eta aurkibidea bildu. Baten bat falta bazaizu **Noaua!**ren egoitzan eskatu (bazkideentzako doan, bazkide ez direnentzako ale bakoitza 200 pta.)

2.- **Laurok** edo **Lizardi** dendek eskeintza berezi bat egin digute; beraz bertara eraman, tapak bertan edukiko dituzu eta koadernatze lana beraiek bideratuko dute. Bazkide denak 900 pta eta bazkide ez denak 1.800 pta ordaindu beharko ditu.

3.- Koadernaketa beste nolabait antolatu nahi duenak tapak **Noaua!**n bertan eskura ditzake. Bazkide denak doan eta bazkide ez denak 500 pta.

Noaua!ren Kale Nagusiko egoitzako ordutegia: **goizean 9etatik 11etara;**
arratsaldean 4etatik 6etara.



EGIN ZAITEZ BAZKIDE

Orain bazkide egiten bazara bazkideen onura guztiak jaso ditzakezu: goian aipatutakoak (kuadernatzeko falta zaizkizun zenbakiak doan, kuardenatzea erdi prezioan ...) eta gainontzeko guztiak.

BAZKIDE TXARTELA

5000 PEZETAK URTE OSORAKO

Izena: _____
1. Abizena: _____
2. Abizena: _____
Helbidea: _____
Herria: _____
Tfnoa: _____
Kontu Korrontea (20 digito): _____



Usurbilgo OFIZIOAK

zure eskura dituzu

ITURGINTZA

LATAILLADE, IÑAKI

Ariztitxo kalea, 8

Atxegalde

☎ 36 33 48 - 36 26 35

ORBEGOZO, JAVIER

Iturgintza, gasa eta berogailuak

Bizkarre kalea, 1 - 1.esk.

Kaleberri

☎ 37 29 37 - 36 59 26

OSTAPE

Ostape etxea

Kalezar

☎ 36 16 95

PORTULARRUME, XEBERO

Kale Nagusia, 10

Kaleberri

☎ 36 46 37

ROIZ, PEDRO

Erreka-txiki kalea, 1 - 1.C

Kaleberri

☎ 36 31 74

ELEKTRIZITATEA

IZAGIRRE, MIKEL

Goiz-Argi etxea, 37

Kalezar

☎ 36 50 95

ARGILAN

Instalakuntza elektrikoak

Kontzeju zaharra, 13

Kaleberri

☎ 37 02 74

ARROZTEGIAK

BEREZIARTUA

Egurrezko eta aluminio-egurrezko

leihoak

Izpira etxea

Aginaga

☎ 37 15 71 - Faxe 36 01 59

GONSABI S.L.

Ugarte, 9

Kalezar

☎ 37 10 61

IBARGOEN, JOSE RAMON

Neurriko altzariak

Errotaberri kalea, 3 - Osinalde

☎ 36 14 48 - 36 31 24

IKUTZA, JOSE MARI

Ugarte, 4

Kalezar

☎ eta faxa 37 12 21

MANSO, ABILIO

Ugarte, 10

Kalezar

☎ 37 05 73

OLASAGASTI, KETXU

Gurutze etxea

Kaleberri

☎ 36 12 13

IGELTSERITZA

AIZPURUA, JOSE

Muna Lurra kalea, 20 - 1.B

Olarriondo

☎ 36 37 67

Pintore kalea, 1 - 3.A

Lasarte-Oria

☎ 36 17 83

ARANZAZISTROKI, ANDRES

Igeltseritza eta pintura

Aldapatxo etxea

Kalezar

☎ 36 24 71 - 36 05 50

ERRAZKIN C. B.

Kale nagusia, 1

Kaleberri

☎ 37 26 79

Kontzeju zaharra kalea, 1

Kaleberri

☎ 36 51 25

ZABALA, JOSE MARI

Beheko kalea, 8 - 3.esk.

Atxegalde

☎ 36 59 39

ESKAIOLA

NORIEGA, EUGENIO

Erdiko kalea, 12

Atxegalde

☎ 36 56 65

ELORZA, JOSE ANTONIO

Galtzaragaña 2 - 2.B

Kaleberri

☎ 37 34 70

Ofizioen gida honetan azaldu nahi baduzu, deitu! ☎ 36 03 21